

2013ko albisteen kronika

Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sariak banatu dira

Urtarrilaren 17an, Bilbon, EHUko Bizkaia Aretoan, Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sariak banatu ziren. Ekitaldian sariok antolatzen dituzten bi erakundeen ordezkariak izan ziren: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana idazkaria; eta UPV - EHUrean, Iñaki Goirizelaia errektorea eta Xabier Etxaniz Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordea.

Hauek izan ziren sarituak:

- Zientzia Esperimentalak: Hutsik geratu zen.
- Ikasketa Teknikoak: Arantxa Otegi Usandizaga. Tesia: «Hedapena informazioaren berreskurapenean: hitzen adiera desanbiguazioaren eta antzekotasun semantikoaren ekarpenak».
- Osasun Zientziak: Karlos Iburguren Olalde. Tesia: «Helduen ospitalez kanpoko bihotz-biriketako geldialdien analisisa Euskal Autonomia Erkidegoan».
- Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak: Iñaki Lazkano Arrillaga. Tesia: «Bigarren aukeraren auzia eta itxaropenaren izaera etikoa Krzysztof Kieslowskiren azken garaiko zineman».
- Giza Zientziak: Larraitz Zubeldia Arruabarrena. Tesia: «Omen partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa».

Euskera. 2013, 58, 1. 289-303. Bilbo
ISSN 0210-1564

2008an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak «Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Saria» sortu zuten, euskarazko ikerketa bultzatzeko eta sustatzeko asmoz. Sari hauen bitartez, UPV/EHUK eta Euskaltzaindiak euskarazko tesien ekarpen bikoitza goraipatu nahi dute, batetik jakintzaren arloa zabaltzen laguntzen dutelako, eta bestetik, euskararen normalizazioaren prozesuan ere guztiz lagungarriak direlako. Bi urterik behin deitzen dira.

Hauek izan ziren III. Koldo Mitxelena Sarietako epaimahaikideak:

- Zientzia Esperimentalen jakintza-arloan: Txema Ezpeleta eta Jacinto Iturbe.
- Osasun Zientzien jakintza-arloan: Alberto Loizate eta Inmaculada Gerrickagoitia.
- Giza Zientzien jakintza-arloan: Julian Maia eta Miren Azkarate.
- Gizarte Zientzien jakintza-arloan: Josi Basterretxea eta Patxi Juaristi.
- Ikasketa Teknikoen jakintza-arloan: Lauren Etxepare eta Jose Ramon Etxebarria.

Maite Insaustik (epaimahaiburu), Xabier Kintanak (epaimahaiko burorde) eta Jesus Mari Makazaga Euskara Zerbitzuaren zuzendariak ere osatu zuten epaimahaia.

Eusko Legebiltzarreko presidenteak Euskaltzaindia hartu du

Urtarrilaren 22an, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentek Euskaltzaindiko Zuzendaritza hartu zuen Eusko Legebiltzarrean, eguerdian. Akademiaren Zuzendaritzak ohiko bilkura egin zuen Legebiltzarrean bertan, goizean, eta horren ondoren egin zen bilera presidentearrekin. Akademiaren izenean hauek izan ziren: Andres Urrutia euskaltzainburua; Xarles Videgain buruordea; Xabier Kintana idazkaria; Sagrario Aleman diruzaina; Adolfo Arejita Iker sailburua; Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua; Joseba Zabaleta kudeatzailea; eta Erramun Osa idazkariordea.

«Milaka argi Nafarroan» kanpaina aurkeztu du IKAk Euskaltzaindian

Urtarrilaren 21ean, «Milaka argi Nafarroan» izeneko kanpaina aurkeztu zuen Bilbon IKAk. Euskaltzaindiaren egoitzan emandako prentsaurrekoan, Sagrario Aleman, Joxerra Olano eta Xabier Martinez de Lezea IKA euskaltegiko arduradunek azaldu zituzten kanpaina horren ezaugarriak. «Nafarroa Garaiko euskaldunak non dauden agerian utzi nahi dugu –adierazi zuten–. Horretarako, euskaldun guztiak, Nafarroa Garaikoak izan edo Nafarroa Garaitik kanpokoak izan, elkarri mezuak bidaltzen jarri nahi ditugu, euskaldunen arteko katea sortzeko».

Mondragon Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak testuak eraikitzekeko estrategiez jabetzeko ikastaroa antolatu dute

Mondragon Unibertsitateak (MU) eta Euskaltzaindiak testuak eraikitzekeko estrategiez jabetzeko ikastaroa antolatu zuten 2012-2013 ikasturtean. Ikastaroak 2012an kaleratutako *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburua izan zuen abiapuntu. Liburu hori Euskaltzaindiak argitaratu zuen, Akademiaren Corpus batzordeak landu, eta Pello Esnal batzordekideak koordinatu. Esnalek berak eman zuen ikastaroa, bi egunetan: otsailaren 13an eta 25ean.

Euskara kalitatez erabiltzea erronka garrantzitsua da Mondragon Unibertsitateko irakasle, langile eta ikasleentzat. Kezka horri erantzunez, urteetan zehar euskararen kalitatea hobetzeko ikastaroak antolatu dira hainbat adituren eskutik eta alor desberdinak jorratu izan dira: euskara zientifiko-teknikoa, Euskaltzaindiaren arauak, hizkuntza-baliabideak Interneten, e.a. Dinamika horri jarraituz, euskarazko testuak ekoizten dituzten irakasle eta ikertzaileen artean Unibertsitateko testuak sortzeko idazkeran sakondu beharra sumatzen zen eta Unibertsitateko arduradunek egoki ikusi zuten Pello Esnalek *Hitz-ordena: erabilera estrategikoa* bere liburuan oinarritutako ikastaroa izatea.

Guztira 13 irakaslek eman zuten izena ikastaroan, eta MUko hiru fakultateko irakasleek parte hartu zuten, Enpresagintza, Goi Eskola Politeknikoa

eta Humanitate eta Enpresa Zientzien (HUHEZI) fakultateetako irakasleek hain zuzen ere.

Euskaltzaindiak 14 euskaltzain urgazle berri izendatu ditu

Otsailaren 22an, Euskaltzaindiak Bilbon egin zuen osoko bilkuran, 14 euskaltzain urgazle berri izendatu zituen.

Akademiaren batzorde akademikoetan lanean ari diren pertsonak izendatu ziren. Guztiak ziren batzorde horietako kide, gutxienez 2005. urtetik. Hauek ziren euskaltzain urgazle berriak: Iñaki Aldekoa, Kaxildo Alkorta, Iñaki Amundarain, Nagore Etxebarria, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Antton Gurrutxaga, Patxi Juaristi, Gerardo Luzuriaga, Elena Martínez de Medina, Felix Mugurutza, Manu Ormazabal, Erramun Osa eta Iratxe Retolaza.

2013ko Azkue Literatura Sariak banatu dituzte Euskaltzaindiak eta BBK-k

Martxoaren 6an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, Akademiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak banatu ziren. Sariok Gorka Martinez BBK Fundazioko buruak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak eman zituzten.

Hauek izan ziren 2013ko saridunak:

- A mailan, narrazioan: lehen saria, *Mundiala!*, Maddi Aiestaran; bigarren saria: *Zintzoa izateko ipuina*, Olatz Bereziartua; hirugarren saria: *Martinaren ibilbidea*, Anne Agirre.
- A mailan, olerkian: lehenengo saria: *Egunsentia*, Lorea Azpiazu; bigarren saria: *Ezer ez da betiko*, Naia Ordorika; hirugarren saria: *Parkea*, Aiora Amenabar.
- B mailan, narrazioan: lehen saria: *Janis Joplin, sudur gorriak eta arrautza frijituak*, Lourdes Ondaro; bigarren saria: *Lagun minak*, Markel Txasko; hirugarren saria: *Egunari beldur*, Ane Saiz.

- B mailan, olerkian: lehen saria: *Lehertu, atertu, desertu*, Maialen Akizu; bigarren saria: *Amaraunak*, Inhar Esnaola; hirugarren saria: *Itzaldtu*, Maialen Akizu.

Azkue Sarien helburu nagusia idazle gazteak literatura mundura erakar-
tzea da. Edizio honetako epaimahaikoak hauek izan ziren:

- A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.
- B mailan: Joseba Butron, Amaia Jauregizar eta Jabier Kaltzakorta.

Mauleko Libürüaren Egüna, Sarako Idazleen Biltzarra, liburu azokak

Martxoaren 16an, II. Libürüaren Egüna festan izan zen Euskaltzaindia, eta saltokia jarri. Akademiak Zuberoarekin lotura duten argitalpen batzuk eraman zituen, eta baita azken nobedadeak ere. Edizio honetako gai nagusia emakumea eta literatura izanik, gai honen inguruan ekitaldi ugari egin ziren egun osoan zehar. Miren Agur Meabe idazle eta euskaltzain urgazleak olerki batzuk irakurri zituen, eta mahai-inguru batean hartu zuen parte. Jean-Baptiste Coyos eta Jean-Louis Davant euskaltzain osoak Libürüaren Egü-
nean izan ziren, eta Andres Urrutia euskaltzainburua ere Maulera joan zen.

Apirilaren 1ean, Sarako Idazleen Biltzarrean, honako hiru liburuak aurkeztu zituen Euskaltzaindiak: *Jon Mirande, olerkaria*, Txomin Peillenena; *Antoine D'Abbadie, Abbadiaz*, Jean-Louis Davantena; eta Gratien Adema «Zaldubi»ren *Gaineratekoen bilduma*, Henri Duhauk prestatua.

Bestalde, Euskaltzaindiak parte hartu zuen Bilboko Liburu Azokan. Maiatzaren 31tik ekainaren 9ra bitartean Areatzan egin zen Azokan, saltokia jarri zuen Akademiak eta urte osoan argitaratutako liburuak izan zituen salgai. Era berean, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren laguntzarekin antolatu zen «Euskal emakume idazleak» izeneko erakusketan parte hartu zuen Akademiak.

Horretaz gain, Institut d'Estudis Catalans eta Consello da Cultura Galega erakundeekin batera, Euskaltzaindia Madrilgo Liber Azokan izan zen

urrian, hilaren 2tik 4ra. Aipatu hiru erakundeok erakustoki berean izan ziren. Eta, urtero bezala, Durangoko Azokan izan zen Akademia. Abenduaren 5etik 8ra bitartean egin zen Azokan, saltokia jarri zuen Akademiak eta urte osoan kaleratutako liburuak izan zituen salgai.

Nafarkariaren zenbaki guztiak Euskaltzaindiaren webgunean

Nafarkaria, *Euskaldunon Egunkariaren* Nafarroako gehigarriaren ibilbide osoa, hots, bizirik iraun zuen bitartean kaleratu ziren 547 zenbakiak, sistematizatu eta digitalizatu ditu Euskaltzaindiak, eta bere webgunean kontsulta daitezke. Lana, Nafarroako Gobernuaren eta Akademiaren arteko hitzarmenari esker burutu da.

1991ko abenduaren 6an kaleratu zen lehenbizikoz *Nafarkaria*, *Euskaldunon Egunkariaren* Nafarroako gehigarria. Geroztik ostiralero ikusi zuen argia, harik eta 2002ko uztailaren 26an, larritasun ekonomikoak itota, desagertu zen arte.

2011rako sinatu zuten hitzarmenean, Akademiak eta Gobernuak *Nafarkaria* digitalizatzea eta Interneten kontsultagai jartzea adostu zuten. Halaxe egin zen, eta lan horren fruitua da 2013ko apirilean sarean jarri zena.

«Herri Literatura Jardunaldietako Antologia» atal berria Euskaltzaindiaren webgunean

Maiatzaren 31n, Euskaltzaindiak atal berri bat zabaldu zuen Interneten, «Herri Literatura Jardunaldietako Antologia» izenekoa. Bertan, Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordeak antolatu dituen herri literaturari buruzko jardunaldietako ekarpenik mamitsuenak bildu dira. Horietako bi –Antonio Zavalak eta Bernardo Atxagak 1994an eta 2005ean eman zituzten hitzaldiak– lehen aldiz argitaratu ditu Akademiak. Are gehiago, Atxagarena argitaratu gabea zen eta lehenbiziko aldiz jartzen zen publikoaren eskura.

Pello Esnal batzordeko idazkariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak egin zuten atal berriaren aurkezpena, Donostian.

Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren irakurketa jarraitua

Ekainaren 20an, Bilbo Zaharra Forumak antolatutako Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren irakurketa jarraitua egin zen Bilboko Arriaga Antzokian, goizeko 8:00etatik iluntzeko 20:00etara. Klasikoen Irakurraldia egitasmoaren seigarren edizioa izan zen. 2008an Axularren *Gero* irakurri zen, 2009an Mogelen *Peru Abarca*, 2010ean Jon Miranderen *Haur besoetako*, 2011n Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* eta iaz Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*.

Euskaltzaindiaren aldetik, urtero bezala, kide batzuk parte hartu zuten. Goizeko 8:00etan, liburuaren lehenengo hitzak Bernardo Atxagak berak irakurri zituen, eta ondoren 400 lagun inguruk pasarte bana irakurri zuten, txandaka, horien artean Andres Urrutia, Xabier Kintana, Adolfo Arejita eta Jose Luis Lizundia euskaltzainak zirela. Egunean zehar, euskaltzain urgazle batzuk ere izan ziren irakurketan.

Orotariko Euskal Hiztegiaren 3. argitaraldi elektronikoa

Ekainaren 28an, Euskaltzaindiak *Orotariko Euskal Hiztegiaren 3. argitaraldia* aurkeztu zuen Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean. Bertsio berriak, guttira, ia 3.000 sarrera berri –sarrera nagusi eta azpisarrera– ditu. Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Ibon Sarasola egitasmoaren zuzendariak; eta Gabriel Fraile teknikariak. Eurekin batera, Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko presidentea izan zen.

OEHren lehen bertsioa paperean argitaratu zen. Azken liburukia –hamaiseigarrena– 2005ean kaleratu zen, eta handik lau urtera, 2009an, hiztegi osoaren oinarritzko bertsio elektronikoa sarean jarri zen. 2011n, bigarren argitaraldia eskaini zuen Akademiak eta 2013an hirugarrena. Bigarren ar-

gitaraldian, hasierako bost liburukien berrikuspen sakona egin zen, eta testu zahar batzuetako lekukotasunak gehitu ziren (Lazarragaren eskuizkribua garrantzikoena izan zen). Hirugarren argitaraldian, berriz, gainerako hamar liburukien berrikuspena egin zen.

Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso

Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak. Uztailaren 19an, Bilbon egin zen Osoko batzarrean, Jose Luis Lizundia euskaltzain emeritu izatearen ondorioz sortutako hutsunea betetzeko bozketa egin zuen Akademiak. Kaltzakortak, Euskaltzaindiaren Arautegiak eta Barne-erregelak agintzen duten gehiengo osoa lortu zuen.

Kaltzakortaren hautagaitza Adolfo Arejita, Xabier Kintana, Patxi Uribarren eta Andres Urrutia euskaltzainek aurkeztu zuten.

Euskara ikasteko deia

Euskaltegien sareak antolatutako «Zatoz euskaltegira!» kanpaina burutu zen irailean, Euskaltzaindiaren egoitzan. Hiru agerraldi egin zituzten: irailaren 11n, euskaltegietako eta hezkuntza arloko eragile asko izan ziren: bate-tik, AEK, IKA, Batuz, Elkarlan, Deustuko euskal irakaslegoa, Aurten bai, Maizpide eta udal euskaltegietako ordezkariak; eta bestetik, Koldo Tellitu (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa), Mikel Ormazabal (Kristau Eskola), Lurdes Imaz (EHIGE) eta Patxi Olabarria (ERKIDE-Irakaskuntzako koordinatzailea) hezkuntzako eragileak. Arantza Aurrekoetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea eta Joseba Erkizia HABEko zuzendaria ere izan ziren ekitaldian.

Bigarren agerraldian, irailaren 18an, lan arloko eragileak mintzatu ziren Hauek izan ziren: Erkide Kooperatiben Federazioa; ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuak; eta Ahize-AEK, Ekilore, Emun eta Artez hizkuntz aholkularitza enpresak.

Azkenik, irailaren 26an, hirugarren agerraldi publikoa egin zen. Aurreko bietan bezala, Euskaltzaindiaren egoitzan batu ziren eragile asko eta euskara ikasteko eta euskaltegietan izena emateko deia zabaldu zuten.

Ekitaldian euskaltegien sareak, eta euskalgintzako eta alderdi politikoen ordezkariak izan ziren, eta baita kirolariak edo kultura arloko ordezkariak ere. Besteak beste, Jose Angel Iribar, Rafa Rueda, Toti Martinez de Lezea, Maider Unda, Alex Txikon, Mikel Losada, Galder Perez, Mertxe Mugika, Igone Etxebarria, Ordizia Errugbi taldeko jokalariak, Lorea Bilbao, Josu Larrea, Lourdes Auzmendi, Alfonso Gil, Pili Robles, Jon Salaberria, Beatriz Marcos, Paul Bilbao, Asier Muniategi eta Mikel Irizar izan ziren.

Guztion izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu zuen hitza, eta euskara eta euskal kultura ezagutzeko deia luzatu zuen. Besteren artean, arrazoi honengatik: «Hizkuntza baten inguruak ezagutzea horixe baita, hain zuzen ere, berak eramaten duen ikuskera horren jabea egitea. Irribarre zein negar, neke eta pozak, haserre eta adiskidantzak, alaitasuna eta tristura... labur esanda, giza seme-alaba orori dagozkion sentimenduak eta horiek ere zure hizkuntzan, zure inguruko hizkuntzan, hur-hurrekoz duzun horretan jasoko dituzu. Halakoak nork bere hizkuntzan adieraztea liluragarria eta xarmagarria ere bada. Ikasi eta erabili, erabiliz ikasi, erabiltzeko ikasi... Horretan ditugu bidegile eta bidaide euskaltegiak».

Ondarearen Europako Jardunaldiak

Urrian zehar, «Eraldatutako ondarea» izenburupean, 2013ko Ondarearen Europako Jardunaldiak egin ziren, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta. Euskaltzaindiak «Gure hizkuntza eta literatura berreskuratuz» izeneko hitzaldi zikloa eta «Liburuen bizieta eta iraupena» erakusketa antolatu zituen.

Akademiak urriaren lau egunetan hartu zituen Jardunaldiak: hilaren 8an, 15ean, 22an eta 29an. Lau gai desberdin jorratu ziren hitzaldietan: Bizkaiko toponimoak, Bonaparte printzearen euskalkien mapa, Euskal Herriko kantak eta Axular eta *Gero* (1643) liburua. Hizlariak Mikel Gorrotxategi, Aritz Abaroa, Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar, Jabier Kaltzakorta

eta Xabier Kintana izan ziren. Azkue Biblioteka bisitatzeko aukera ere izan zen, Pruden Gartzia eta Josune Olabarriaren eskutik.

Erakusketari dagokionez, urriaren 1etik 31ra egon zen zabalik, Euskaltzaindiaren aretoan. Hainbat libururen aleak erakutsi ziren, garai desberdinetakoak eta kontserbazio-egoera desberdinetan.

Tuteran, Nafarroa Oinez festarekin bat

Urtero bezala, Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen aldeko festarekin bat egin zuen Euskaltzaindiak. Urriaren 4an, Tuteran, 2013ko Nafarroa Oinez antolatu zuen Argia ikastola bisitatu zuten euskaltzainek.

Bisitaren ostean, Akademiaren Zuzendaritzak bilera egin zuen. Bisitak iraun bitartean, Euskaltzaindiak Nafarroako ikastolei, eta oro har, euskalgintzari, atxikimendua adierazi zien.

Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariak lekuz aldatu da

Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariak lekuz aldatu zen 2013. urtean, eta Gasteizko Apaizgaitegian kokatu. Bertan Euskal Hiztegi Etimologikoa egitasmoan lan egiten duen taldea ere kokatu da.

Hau da helbide berria:

Pedro Asua, 2 - 2. solairua. 01008 Gasteiz.

Telefono zenbakia : 945 23 36 48.

Helbide elektronikoa: gasteizordez@euskaltzaindia.net

2013ko Xalbador Eguna

Xalbadorrekin batera, Basarri izan zuen gogoan 2013ko Xalbador Egunak. Urriaren 11tik 13ra Urepelen egin zen festaren goiburua «Xalbador eta Basarri» izan zen. Urriaren 11n, Benito Lertxundik kontzertua eskaini zuen,

eta 12an *Xalbadorren itzalean*, *hamar urte* Joxemari Iriondok idatzitako liburua aurkeztu zen. Sebastian Lizaso, Juan Jose Eizmendi Loidisaletxe II, Amets Arzalluz eta Joxe Luis Gorrotxategi bertsolariak Urepelen izan ziren.

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ere hitzaldia eman zuen Urepeleko eskoletan, euskararen gaur egungo egoerari buruz Hegoaldean, Nafarroan eta Iparraldean.

Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatzen dute Xalbador Eguna eta urtero, Xalbadorri ez ezik, beste artista bati ere egiten diote gorazarrea. 2013an Basarri bertsolaria izan zen aukeratua. Antolatzaileek adierazi zuten, «Inazio Eizmendi Basarri bertsolariaren jaiotzako mendeurrena betetzen da aurten, 1913ko azaroan sortu baitzen. Xalbadorren bertsu laguna izan zen aldi batean, eta Iparraldeko eta Hegoaldeko herrietako plazetan elkarrekin kantatu zuten. Horregatik, biak batera omendu nahi ditugu aurten».

Urepeleko Herriko Etxearen, Euskaltzaindiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntasun eta babesa izan zuen 2013ko Xalbador Egunak.

Euskaltzaindiaren ordezkariak Europako Parlamentuaren hizkuntza gutxituei buruzko talde artekoan

Azaroaren 21ean, Euskaltzaindiak Europako Parlamentuaren hizkuntza gutxituei buruzko talde artekoan parte hartu zuen, Estrasburgon. Parlamentuaren osoko bileraren baitan egin den talde artekoaren bileran aritu ziren, Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xarles Videgain buruordea.

Izaskun Bilbao eurodiputatuaren ekimenez, euskararen munduko zenbait eragilek eta agintarik osatutako ordezkariaren agerraldia izan zen Europar Parlamentuan. Guztien artean, euskara biziberritzeko eta hizkuntza gutxitu baten hiztun kopurua handitzeko egin den lana aurkeztu zuten.

Euskaltzaindiko kideekin batera, Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Xabier Epaltza, Euskara Kultur El-

kargoaren presidentea; eta Allende Boutin, Euskararen Aholku Batzordeko kidea izan ziren.

Agerraldian, Euskal Erkidego Autonomoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian dauden politikak eta emaitzak alderatu ziren. Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen biziraupena bermatzeko, hiru alderdi aipatu zituzten hizlariak: legezko babesa, hiritarren atxikipena eta hizkuntza politikaren engaiamendua.

Euskaltzaindiaren buruak eta buruordeak erakundearen historia, ibilbidea, nortasuna, egitasmoak eta erronkak, besteak beste, izan zituzten hizpide.

Euskararen egoeraz ere aritu ziren, eta euskara batuaren garrantzia aldarrikatu zuten: «Euskararen batasun prozesua izan da, hizkuntzaren aitorten ofizialarekin batera, euskara bera berreskuratzeko eta biziberritzeko oinarritzko faktorea».

Erakunde eta elkarte askoren lanari esker, gaur egun euskara sona handiko hizkuntza dela baieztatu zuten, eta babes sozial zein instituzional handia duela gaineratu. «Berreskuratze eta modernizatze prozesu honetan –esan zuten– Euskaltzaindiaren egingizuna ezinbestekoa izan da».

***Linguae Vasconum Primitiae* beste sei hizkuntzatan irakur daiteke**

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren edizio berri bat aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak. Jatorrizko testuaz gain, katalan, galiziera, errumaniera, arabiera, kitxua eta txinerazko itzulpenak ditu edizio berriak. Ekitadi berean, gainera, Jean Haritschelhar zena gogoan izan zuten.

Ekitaldian hauek mintzatu ziren: Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana Akademiako idazkari eta edizioaren arduraduna. Amaieran, Xabier Kintanak euskaraz irakurri zuen *Kontraþas* poema. Liburua beste hizkuntzetara itzuli duten itzultzaileak ekitaldian izan ziren eta irakurraldia osatu zuten. Joan

Martí katalanez aritu zen, Manuel González galegoz, Delia Mihaela Cristea errumanieraz, Fang Xiao txineraz, Shaalan Hares arabieraz, eta, kitxuarako itzultzaileak bertaratzerik izan ez zuenez, Verónica Yuquilema, Mondragon Unibertsitateko ikasleak hizkuntza horretan irakurri zuen.

Horrezaz gainera, Mikel Morris, Karmele Jaio, Julia Brade, Simon Lambert eta Giovanni Zanonen bideoek aukera eman zuten *Kontrapas* entzuteko ingelesez, gaztelaniaz, alemanez, frantsesez eta italieraz. Amaitzeko, Xabier Leteren eta Erramun Martikorenaren ahotsak entzun dira, haiek testu horretaz egindako musika-egokitzapen ezaguna kantatzen.

«Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean» ikastaroa Baionan

Abenduaren 9an, «Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean» izeneko ikastaroa egin zen Baionan, Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan. Euskaltzaindiak eta EEPk elkarlanean antolatu zuten, eta Patxi Salaberri Onomastika batzordeko buruak, eta Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Paskual Rekalde eta Felix Mugurutza batzordeko kideek eman zuten.

Herrietako toponimia ikertu, finkatu, erabili eta zaintzeko ikastaroa izan zen, eta bereziki euskara, hirigintza eta kultura alorreko teknikariei zuzenduta egon zen.

Patxi Salaberrik «Euskaltzaindia eta onomastika lanak» mintzaldia eman zuen, gai hauek jorratu zituelarik: onomastika arautzearen beharra; euskal toponimiaren ikerketa eta normalizazioaren historia; Euskaltzaindiaren ardua eta lana onomastika alorrean; onomastikaren normalizazioa eta onomastika euskararen normalizazioan.

Patxi Galék «Toponimia ikerketen oinarri teorikoak» gaiaz hitz egin zuen. Besteak beste, toponimia zergatik ikertu behar den, berau arautzeko irizpide orokorrak edota toponimia ikerketa baten urrats nagusiak aipatu zituen.

Mikel Gorrotxategi «Toponimia ikerketak gauatzeko prozedura eta ikerketaren pausuak» gaiaz aritu zen, eta ikerketa baten helburuak zein garapena izan zituen mintzagai.

Paskual Rekaldek «Administrazioen eginbearra» gaia jorratu zuen. Akademiaren eta Administrazioaren eginbearraz mintzatu zen.

Azkenik, Felix Mugurutzak «Onomastikaren zabaltzea» gaiaz hitz egin zuen. Ikerketen emaitzak ezagutarazteko, erakusketak egin, edota mapen eta fitxa didaktikoen bidez zabal daitezkeela azpimarratu zuen.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren V. liburukiaren aurkezpena

Abenduaren 12an, Bilbon, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren V.* liburukia aurkeztu zuen Euskaltzaindiak. Aurreko laurak bezala, EHHA-ren bosgarren liburukia Laboral Kutxaren babesarekin argitaratu zuen Akademiak. Bosgarren liburukiak euskararen morfologia jorratzen du, izenaren morfologia zehazki eta parterik handiena deklinabideak hartu du.

Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainbu-ruak; Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailbu-ruordeak; Ana Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusiak; Pello Ugalde Laboral Kutxako Lurralde zuzendariak; Adolfo Arejita EHHA-ren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain egitasmoaren ardu-radun teknikoak.

Liburukia mugatzailearekin abiatzen da. Mugatzaile neutroa, -a, erans-tean euskal izenetan gertatu ohi diren aldaketak, bokalen aldetik eta into-nazio aldetik, erakusten da. Ondoko mapa-erantzutegietan, izen kategoria-ko hitz hautatuei mugatzailea eta deklinabide-atzizkiak erantsirik, jaso diren erantzunak biltzen dira, eta azken partean konparazio egiturak, zenbakiak, ordinalak eta orduak.

Galdeketo izenak, oin-hitzaren amaierako bokal, diptongo edo kontso-nante ezberdinen arabera hautatuak dira. Amaiera bereko bi hitz hautatu dira, biziduna eta bizigabea: «alaba»-«eliza», «seme»-«etxe», «idi»-«herri», «asto»-«itsaso»-«zulo», «katu»-«negu», «zelai», «hodei», «behi», «gizon», «oi-lar», «sagar», «ahuntz» eta abar. Izen berezien morfologia ere kontenplatu da, bai pertsona-izenena, bai toki-izenena: Maritxu, Madalen, Bilbo, Baiona.

Erlea aldizkariaren 7. zenbakiaren aurkezpena

Abenduaren 19an, Euskaltzaindiak argitaratzen duen eta Bernardo Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariaren zenbaki berria, zazpigarrena, aurkeztu zen Bilbon, Akademiaren egoitzan. Besteren artean, erbestea eta loreak, hutsuneak eta antologiak, dira zenbaki horren protagonista.

Bernardo Atxaga zuzendariarekin batera, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jokin Azkue Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak aurkeztu zuten aldizkaria.

Erlea 7 honetan partaide izan dira: Lorenzo Rojo, Karmele Jaiio, Jon Benito, Jose Manuel Bujanda, Garbiñe Biurrun, Mari Romero, Alberto Barandiaran, Koldo Izagirre, Kepa Altonaga, Asun Garikano, Mikel Urdangarin, Kepa Altonaga, Estibalitz Ezkerra, Aritz Galarraga, Jacinto Iturbe, Lourdes Otaegi, Miguel Sanchez-Ostiz, Juan Ignacio Pérez, Jabier Kaltzakorta, Luzien Etxezaharreta, Joxemari Iturralde, Iñaki Sarriguarte, Pepe Altair, Harkaitz Cano, Mikel Urdangarin, Xabier Elorriaga eta Joseba Luzuriaga.

Azala Karen Amaiaarena da. Argazkiak eta ilustrazioak Ernesto Valverdek, Mikel Valverdek, Jose Ramón Urtasunek eta Zaldieroak egin dituzte. Zaldieroaren komikia, «Urrezko liburutegia» eta «Foroa - azkenaldiko liburak» ohiko atalak ere bildu zituen *Erlea* aldizkariaren zenbaki berriak.

Ana Toledo eta Jabier Kaltzakorta, Literatura Ikerketa eta Herri Literatura batzordeetako arduradun berriak

Abenduan, Euskaltzaindiak Literatura arloko bi batzordeetan arduradun berriak izendatu zituen. Hala, Ana Toledo da Literatura Ikerketa batzordeko arduradun berria, eta Jabier Kaltzakorta Herri Literatura batzordekoa.

Iraillean hil zen Jean Haritschelhar. Egindako izendapenarekin, berak utzitako hutsunea bete zuen Ana Toledo euskaltzain osoak.

Jabier Kaltzakorta, berriz, Herri Literatura batzordeko arduradun izendatu zuen Akademiak.